

DIRU-ITURRIAK

Gure irabazi-iturriak bezeroengandik etorriko dira. Dirua lortzeko bi modu izango ditugu; batetik, bazkide direnek abantaila batzuk izango dituzte; izan ere, bazkide izateak esan nahi du gugan konfiantza dutela eta edozer eginda ere, babestu egingo gaituztela. Bestetik, bazkideak ez direnak egongo dira; honako hauek ez dute esan nahi ez direla gugan leialak, baina agian ez dute bazkide bihurtu nahi edota ezin dute onartu hori izateagatik ordaindu beharreko kuota.

Bezero direnek 5€-ko kuota ordaindu beharko dute hilabetean; diru honek poltsak sortzen eta ahalik eta naturalenak bihurtzen lagunduko digu. Haiek hau ordaintzen dutenez, poltsetan deskontuak izango dituzte, bazkide ez direnek ez bezala. Azkeneko hauek poltsengatik diru gehiago ordaindu beharko dute, baina ondasun berdina kalitate berean jasoko dute; hau da, bezeroa izan edo ez izan, erositako produktua berdina izango da.

Gainera, enpresaren web orrian jarriko ditugun beste enpresa batzuen publizitatea izango duten txarteltxoek bidez, diru apur bat gehiago irabazteko aukera izango dugu, eta hilean gutxi gorabehera 25€ izango direnak.

Poltsa bakoitzak 1€-ko prezioa izango duela erabaki dugu, eta urtean 94.500 poltsa saltzea aurreikusten dugunez, aktiboen salmentetatik lortutako diru sarrerak 94.500€-koak izango dira, enpresaren diru-iturri nagusia izango da, hortaz.

Argi dago plastikozko poltsen kontsumoa murrizten ari dela geroz eta gehiago. Horrek esan nahi du, agian bezero kopurua jaitsi egingo dela eta beti ez ditugula bezero berdinak izango. Gure ateak irekita egongo dira edozein bezerorentzat, eta arazorik gabe gure enpresan murgiltzeko aukera izango dute.

Gure hasierako aurreikuspena ez da irabazi askokoa, baina ziur gaude denbora pasa ahala bezero gehiago batuko direla eta irabaziak pixkanaka handitzen joango direla. Horregatik, taldeko bakoitzak diru kopuru jakin bat (1000€) jarri beharko du enpresa eraikitzerako orduan, horrela lokala eta beste hainbat lehengai eskuratu ahal izateko.